

PROGRAMA
EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2023



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

gizartea eta kultura
garaikidea

Bilbao

6

Hiruhileko honetan gurekin
izango dira...

PROGRAMAZIOA

8



*Somewhere from here to
heaven.* Erakusketa

10

Bene Bergado

Decrecer. Erakusketa

12

P. Staff *The Foundation*

Proiektzioa eta solasaldia

13

Karlos Martínez B.

Lock&Key. Solasaldia

14

Ion Munduate. Azkuna

Zentroko Kolektibo Egoiliarra
Rosa de los vientos

15

Urbanbat. Azkuna Zentroko

Kolektibo Egoiliarra
Behatokia. Topaketa

16

Elena Aitzkoa. Artista AZ-
kidea. *Ur aitzak.* Eskultura

17

AZ Irratia. Azkuna

Zentroaren irratia. Podcastak

18

Estudio Gheada

El Mejor de los Mundos
(EMDLM)

Performancea

19



Macarena Recuerda

Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo

Performancea

20



Poliana Lima

Oru negro Dantza

21

Sergio Luque & Juan

Carlos Blancas

La légende d'eer (Xenakis)

Musika esperimentalak.

Kontzertua

22



Jean-Luc Godard
Esperimentatzeko artea
Zinemateka

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

26

Sorkuntza garaikidean
laguntzeko programa

27



Nazioarteko egonaldi
berriak: arte eszenikoak
eta teknologia berriak

28

Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa

32

Artista AZ-kideak

33

Ikertzaile AZ-kideak

33

Azkuna Zentroko Kolektibo
Egoiliarra

34

Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia

HEZKUNTZA PROGRAMA

38

Reel Zinema tailerra

39

Zinema-elkarrizketak.
Argiak, kamera... ekin!

39

Komikiari buruzko
ezinbesteko elkarrizketak

39

Irakurketa-kluba
Munduko Literatura

40

Macarena Recuerda
Shepherd

40



Bilbon Eskolatik
Antzerkira

AZ

51



AZ argitalpenak

52

JFZ

56

Informazio orokorra

Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure alarian izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurten abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.




Elena Aitzkoa
Artista AZ-Kidea



Miguel A. García
Artista AZ-Kidea



Ion Munduate
Artista AZ-Kidea



Isabel de Naverán
Ikertzaile AZ-Kidea



Aimar Arriola
Ikertzaile
AZ-Kidea

© Helena Gotti



Urbanbat
Azkuna Zentroko
Kolektibo Egoiliarra



**Pablo Marte & Lorenzo
García-Andrade**
Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa



Estanis Comella
Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa



P. Staff
Artista bisuala



Oihana Vicente
Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa



Julia Martos
Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa

© Eduardo D'Acosta



Maia Villot
Babestu. Sorkuntzari
Laguntzeko Programa



Karlos Martínez
Artista




Clara Chotil
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Charlotte Gosselin
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Andrea Ganuza
Komikiaren Nazioarteko
Egonaldia



Apichatpong Weerasethakul
Zuzendaria, ekoizlea eta zinema-gidoigilea

© Victoria Perrella



Eduardo Williams
Zinemagilea



Garbiñe Ortega
Komisarioa



Ben Rivers
Artista eta zinemagile esperimentalak



Ana Vaz
Artista eta zinemagilea



Bene Bergado
Artista



JL Moraza
Komisarioa eta artista




Macarena Recuerda Shepherd
Artista



Poliana Lima
Koreografoa



Ane Pikaza
Artista



Sergio Luque
Musikaria



Juan Carlos Blancas
Musikaria

© Katerinagurska



Nerea Diaz
Open Espazioko zuzendaria



Gaspar Maza
Historialaria eta gizarte-antropologoa



[#artebisualak](#) [#erakusketa](#) [#zinemaesperimentalak](#)

Somewhere from here to heaven

Artistak: Ana Vaz, Apichatpong Weerasethakul,
Ben Rivers eta Eduardo Williams

Komisarioa: Garbiñe Ortega

2022KO URRIAREN 28TIK 2023KO APIRILAREN 16RA

Erakusketa Aretoa
Sarrera doan

Erakusketa Aretoa apirilaren 16ra arte egongo da *Somewhere from here to heaven*, 1960ko hamarkadako "funtsezko" zinemagile eta zinema esperimentalaren sustatzaileetako bat izan zen Bruce Baillieren lanaren inguruko erakusketa.

Zinema esperimentalean aditua den Garbiñe Ortegak komisariatuta, erakusketak [Bruce Baillieren](#) unibertso filmikoaren eragina duten hainbat belaunalditako artisten konstelazio bat marrazten du. Baillieren zinema poetiko eta soziala inspirazio-iturria izan da sorkuntza esperimental garaikidean eta mugimenduko irudian nazioarteko erreferentzia diren ondoko lau artistek Zentroaren ekoizpen honetarako egin duten lanetarako: [Apichatpong Weerasethakul](#), [Ben Rivers](#), [Ana Vaz](#) eta [Eduardo Williams](#). Erakusketa honetarako sortu dituzten lanek ibilbide bat hasi dute mundu osoko zinema-zirkuituetan barrena, esaterako, Berlingo Nazioarteko Zinema Jaialdian.

Lan berri horiez gain, erakusketan J.P. Sniadecki zinemagileak proiektu honetarako berriaz egin duen pieza bat izango da ikusgai: Baillieren bizitzako azken urteetan, harekin bizi izandako une intimoek osatua.

Bidaia etengabea, naturaren eta gizarte modernoaren arteko sinbiosia, argiaren bilaketa intuitiboa eta gauzen esentzia espirituala aurkitzeko bulkada dira, Garbiñe Ortegaren esanetan, «proiektu hau ehuntzen duten ideietako batzuk. Artea bizitzeko eta ulertzeko modu batekiko konpromiso sakona da sostengua, bost artista hauen praktikaren muinean dagoen ideia».

LIBURUA / KATALOGOA *Somewhere from here to heaven*

Egileak: Erika Balsom, Steve Anker, Scott McDonald, Jonas Mekas, Peter Hutton, Max Goldberg, Andréa Picard, JP Sniadecki, Apichatpong Weerasethakul, Ana Vaz, Ben Rivers eta Eduardo Williams.

Salgai dendAZen, Azkuna Zentroaren dendan, eta dendaz.azkunazentroa.eu webgunean.

ARTISTAK:

APICHATPONG WEERASETHAKUL (Bangkok, 1970) Zinema garaikidean ikuspegi berezietako bat duen egiletzat hartuta, bere film luze eta laburrak aintzatetsiak izan dira nazioartean eta sari ospetsuak eskuratu dituzte, esaterako, Cannesko Zinemaldiko Urrezko Palma.

ANA VAZ (Brasilia, 1986) Etnografiaren eta espekulazioaren artean kokatuta daude Ana Vazen lanak, eta mito eta historiaren, kultura eta naturaren, "ni" eta "bestearen", paisaia basati eta zibilizatuaren arteko harremanak ikertzen dituzte. Haren lanaren ezaugarri nagusia da aurkitutako materiala eta filmazio propioa nahastea.

EDUARDO WILLIAMS (Buenos Aires, 1987) Williams bezalako errealdoreek zinema hizkuntza-tresna gisa hartzen dute, inola ere ezin bereiz daitekeena berezko existentziatik, mundua ikusteko duten eratik eta mundu hori nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen moldetik.

BEN RIVERS (Erresuma Batua, 1972) Zinemagile gisa egindako lana dokumentalaren eta fikzioaren artean dago. Askotan gizarrietik nolabait aldendu diren pertsonen jarraitu, eta filmatzen ditu. Material gordin horrek abiapuntua ematen dio bazterreko munduetan existentzia alternatiboak irudikatzen dituzten narratiba zeharrak sortzeko.



#artebisualak #erakusketa

Bene Bergado

Decrecer

Komisarioa: Juan Luis Moraza

Bene Bergado eskultoreak erakusketa-proiektu espezifiko bat aurkeztuko du Azkuna Zentroko Erakusketa Aretoarentzat, *Decrecer* izenburukoa, artistak Bilbora egindako itzulera agertzen duena eta alderdi biografikoak eta ideologikoak uztartzen dituena.

Lan berri honetan, Bene Bergadok "decrecer" (desazi) infinitibo proposatzen du «gure gizarte garatuen –horrela deitzen baitzaie– ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkunde esponentzial eta mugagabearen aurrean». Izan ere, «bizi gara naturak milioika urtez gorde zituen baliabideak inolako begirunerik gabe xahutzen, eta horrek krisi global batera eraman gaitu, baliabide naturalen agortze batera», ohartarazi du.

Ekintzarako dei horrek zeharkatzen du Juan Luis Moraza artistak komisariatutako erakusketa. Alde horretatik, erakusketako instalazio eta eskulturek desazelerazio baten beharrarekin dihardute, mugaren kontzientziaren bidez, energia gutxiko eta ezinbesteko bizi-aldaketez beteriko etorkizun hurbilera egokitzeko. Komisarioak zehazten duenez, kode eta sistema desberdinak egituratzen dituen diagrama handi gisa, «Decrecer erakusketak agerian jartzen du artearen eta aztertzen duenaren artean dagoen tentsio dinamikoa: bere prozesu artistikoen eta gairik esplizituenen artekoa». Erakusketan, honako instalazio hauek nabarmentzen dira: *Tierra quemada*, 4 partetan zatitutako dorre elektriko batez osatua eta habitat edo babesleku bihurtua; eta *Generador*, biltegirako pilaketa baten modura, «bateria gisa jarduten duena, obraren intentsitatea sortzen, zeinaren aberastasunak eta konplexutasunak ikuslea behartzen baitu errealitateaz jabetzera».

Horrela, *Decrecer* ez da erakusketa honetako edukia edo gaia bakarrik, esperientzia artistikoaren berezko konpromisoa ere bada.

2023KO EKAINAREN 29TIK 2024KO URTARRILAREN 7RA

Erakusketa Aretoa

Sarrera doan

BENE BERGADO

(Salamanca, 1963).

Artista. Erreala, errealitatea eta fikzioa bizipeneko hibridoetan artikulatzen eta desegiten diren gailu eta prozesu korapilatsuetan bizi dira haren lanak. Haren eskulturretan, dena da aldi berean sinesgarria eta nahasgarria, susmagarria eta egiazkoa. Haren lana, besteak beste, honako bilduma hauetan dago: JUMEX (Mexiko), Banco de España (Madril), MUSAC (Gaztela eta Leóngo Arte Garaikidearen Museoa) León eta Gasteizko ARTIUM Museoa.

JUAN LUIS MORAZA

(Gasteiz, 1960). Eskultorea eta komisarioa. Bakarkako erakusketak egiten ditu eta talde-erakusketetan parte hartzen du 1980tik. Vigoko Unibertsitateko irakasle titularra da eta hainbat unibertsitatetako master eta doktoregoko programetan irakasten du. Besteak beste, honako erakusketa hauek komisariatatu ditu: *Tesoro público. Economías de realidad* (ARTIUM, 2012), *El retorno de lo imaginario. Realismos entre XIX y XXI* (Reina Sofía, 2010) edo *Incógnitas. Cartografías del Arte contemporáneo en el País Vasco* (Guggenheim-Bilbao, 2007)

P. Staff

The Foundation

Proiektzioa eta, ondoren, solasaldia Aimar Arriolarekin, Ikertzaile AZ-Kidea

The Foundation (2015) filma Los Angeleseko (AEB) Tom of Finland Fundazioaren ingurukoa da —XX. mendeko artista erotikoa eta gay ikonoaren artxiboaren egoitza— eta hartaz arduratzen diren pertsonen komunitate baten ingurukoa. Ez da Tom of Finland-i "buruzko" film bat; horren ordez, leku horretan tarte bat pasatzeko esperientzia bideratzen du, galderak egiteko gorputzari, artxiboari eta belaunaldien arteko transmisioari buruz. Filma anibalentziarekin lan egitearen emaitza ere bada; hau da, irudikatzen zaituzten eta,aldi berean, ez zaituzten irudi, esperientzia eta oroitzapenekin inplikatzearen emaitza.

Ondoren solasaldia izango duen proiektzio-saio honetan, anibalentzia hori bikoiztu egiten da, filma orain berriz aztertzeke esperientzian.

Jarduera *Forma desira* (2020-2023) programaren barruan dago, Aimar Arriola komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZKide gisa garatzen duen programazio publiko eta ikerketa pertsonalean.

APIRILAK 18, ASTEARTEA

18:30

Bastida Aretoa

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

P. STAFF

(Bognor Regis, Ingalaterra, 1987)
Los Angelesen eta Londresen bizi, eta lan egiten du. Bere azken banakako erakusketen artean, honako hauek daude: Espai 13, Fundació Miró, Bartzelona (laster, 2023); *Love Life II*, Commonwealth and Council, Los Angeles (2022); *Love Life*, Galerie Sultana, Paris (2022); *Pure Means*, Frieze Film, 2022; *Recent Poems*, yaby, Madril (2021). P Staffek *The Milk of Dreams* erakusketan parte hartu zuen, Veneziako Nazioarteko Bienalaren 59. edizioan (2022).

The Foundation (2015), filmaren fotograma



#artebisualak #eskultura #gorputza

Karlos Martínez B.

Lock&Key


Artistaren aurkezpena, Aimar Arriola Azkuna Zentroko ikertzaile AZkidearekin batera

Karlos Martínez B.k marrazkitik eta bi dimentsioetatik lantzen du eskultura; prozesu horretan, bolumena planotik gorpuzten da. Duela gutxi, beste testuinguru batean, artistak esan zuen bere egungo lanean arreta eman nahi ziola bere desioari, harrapatu nahi zuen, eta zalantza zuen hori posible ote zen. Susmoa zuen desirak lotzeak haien menpe egotea dakarrela gehienbat.

Topaketa honetan, [Karlos Martínez B.k](#) eta [Aimar Arriola](#) komisarioak ariketa ireki bat proposatuko dute nork bere desioak lotzeko. Gainera, egun bat lehenago, eta *Forma desira* programaren barruan, Karlos Martinezek landinamika bat planteatuko du, interesatuei zuzenduta eta publikoarentzat itxia (informazio gehiago [azkunazentroa.eus](#) webgunean).

Bi jarduerak elkarrekin funtzionatzen dute, segurtasun-sarraila baten engranajearen moduan, non elementu batek bestea mugiaratzen duen.

Proposamenak amaiera ematen dio *Forma desira* lanari, Aimar Arriolak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa jorratu duen programazio publikoari eta ikerketari.



Prozesuaren irudia

MAIATZAK 9, ASTEARTEA

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte

KARLOS MARTÍNEZ B.

(Bilbao, 1982) Eskultura-ekoizpenean oinarritu izan da bere lana. Hauek dira banaka egin dituen oraintsuko erakusketak: *Gaps & Corners*, Nadie Nunca Nada, Madril (2023); *Un agujero en el cielo*, Arte eta Historia Museoa, Durango (2022); *Black Patterns*, Carreras Múgica, Bilbo (2021); *Vaciados*, Taca, Palma de Mallorca eta ANTI, Bilbo (2020). 2023ko otsailean Madrilgo Reina Sofía Museoaren Bilduman sartu da bere lana.



Ion Munduate

Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra

Rosa de los vientos

Rosa de los vientos Ion Munduate koreografoak, Azkuna Zentroko artista AZKide gisa, Blanca Calvo koreografoarekin batera garatzen duen proiektua da.

Proiektuak *hegaldi* izeneko lau topaketa ditu. Haietan, *Haize-arrosa* berezi honen puntu kardinalak ekintzaren eta mugimenduaren praktikei lotutako termino eta kontzeptu bilakatu dira, igarobide eta migrazio desberdinak sortuz. *Hegaldi* bakoitzean, gonbidatu bat eta lantalde espezifiko eta desberdin bat dago.

Martxoan hasi zen proiektua, Iñaki Martínez de Albeniz soziologoak eta Afrikako migratzaile-talde batek parte hartuta, eta apirilean izango du jarraipena, [Itziar Okariz](#) artista gonbidatu gisa izanda.

Gorputza / Oraina / Inprobisazioa izenburupean, Ion Munduatek eta Itziar Okarizek koru-talde batekin batera landuko dute «inprobisazioa, ausazkoak, kognitiboak, sinpletasunak eta konplexutasunak, orainak eta gorputzak konexio-igarobide desberdinak gara ditzaketen denbora eta espazio gisa ulertuta».

Maitasuna ekoizpen gisa / Entzutea / Keinua izeneko hirugarren *hegaldian*, [Laurence Rassel](#) komisario eta Bruselako L'erg-eko (École Supérieure des Arts, École de Recherche Graphique) zuzendariak hartuko du parte.

Azkenik, hiruhileko hau *Gorputza / Entzutea / Oraina* izeneko laugarren *hegaldiarekin* amaituko da, eta [Hervé Diasnas](#) dantzari frantsesak esku hartuko du.

ION MUNDUATE

(Donostia, 1969) koreografoa eta ikertzailea da. 1994an, elkarlan artistiko bizi-bizikiari ekin zion Blanca Calvorekin batera, eta hainbat artelan izan dira horren emaitza. Aldi berean, *Mugatxoan* sortu zuten 1998an (Gure Artea saria 2015), ikertzeari eta sortzeari eskainitako prestakuntza-proiektua. Haien performanceak eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dituzte.

APIRILAREN 24TIK 28RA

2. hegaldia:
Itziar Okariz
Gorputza / Oraina / Inprobisazioa

MAIATZAREN 15ETIK 21ERA

3. hegaldia:
Laurence Rassel
Maitasuna ekoizpen gisa / Entzutea / Keinua

HEKAINAREN 21ETIK 30ERA

4. hegaldia:
Hervé Diasnas
Gorputza / Entzutea / Oraina

HEKAINAK 30

Jendaurreko aurkezpena:
4. hegaldia

DEIALDI IREKIA

Haizeen Arrosako hegaldietan parte hartzeko. Kontsultatu oinarriak hemen: azkunazentroa.eus

#praktikaartistikoak #ikerketa #topaketa

Urbanbat

Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra

Behatokia 4

Urbanbatek, hiri-berrikuntzarako bulegoak, aurrera jarraitzen du Behatokia proiektuarekin, Azkuna Zentroko kolektibo egoiliar gisa. Agora itxurako azpiegitura eramangarri gisa eraturta, *Behatokia* elkarrizketarako gune bat da bertako eragile eta bisitariarentzat, praktika artistiko eta kulturaletatik, ikerketa-ekintzako proiektuak proposatzeko ari direnentzat hiri-erronka garaikideen aurrean.

Espacios Zombi izenburupean, hurrengo "Situation Room-a" Zorrotzaurren izango da. Topaketa horretan gogoeta egingo da Bilboko uharte berria bezalako espazioez. Logika espekulatiboez, interes pribatuek baldintzatutako kudeaketa publikoek, hasi eta geldiarazitako obrek... hiri-paisaia landugabeak marrazten dituzte, pertsona edo instituzio askoren borondateek eragindako desitxuratzeak gorabehera, jardunean jarraitzen dutenak. Pertsona horiek eman nahi izan zioten bizitza lurraldeko dinamiketatik kanpoko interesekin asmatuta baitzegoen.

Horretaz arituko dira [Espacio Openeko](#) zuzendari [Nerea Diaz](#) (gizartean inpaktu positiboko sormen- eta gizarte-proiektuen ekosistema, Bilboko Galleta Fabrika Zaharrean kokatua (Artiach fabrika), Deustuko Erriberan/Zorrotzaurren) eta [Gaspar Maza](#) historialari, antropologo sozial eta [Idensitat](#)-eko kidea (lurraldeko espazio-, denbora- eta gizarte-dimentsioetan eragiteko moduak esperimentatzen dituen arte-proiektua).

EKAINAK 4, IGANDEA

Espacios Zombi

12:00

Tokia: Zorrozaurre. Espacio Open

Sarrera dohainik



#artebisualak #eskultura #poesia

Elena Aitzkoa

Artista AZ-kidea

Ur aitzak

Luz cauce

*Corrientes que nos transportan
granos de luz con sal
Dilatan pupila con pupila
Todo entra y sabe a Mar*

Elena Aitzkoa *Ciénaga Estrellada* eta *Arrebol* erakutsiko ditu Atarian, Azkuna Zentroko artista AZkide gisa lantzen ari den *Ur Aitzak* sormen-proiektuaren barruan sortutako lehen hiru eskulturak.

Ur Aitzak proiektua sei eskulturak osatzen dute, espazio honetan pixkanaka sortuko direnak, ahots- eta poesia-lan bati lotuta beti.

Lehen hiru pieza hauek Josu Bilbao artistarekin elkarlanean sortu dira.

2022-2023

Kulturen Ataria

Hurrengo eskultura:
2023ko ekaina

ELENA AITZKOA

(Apodaka, 1984). Artista. Besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian, performancean eta zineman aritzen da. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta inguruneko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Haren azken proiektuen artean, *Lendia Song* nabarmentzen da (Azkuna Zentroa, Bilbo, 2021). Isabel de Naveránek Reina Sofía Museoaan komisariatutako *Estudio III. Salir al Encuentro. Hablar al lugar* zikloan parte hartu zuen (2021).



Eskultura Arrebol, Elena Aitzkoa, Kulturen Ataria

#irratia #podcast

AZ Irratia. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren irratia

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren programazioa kultura garaikidea zabaltzen, handitzen eta maximizatzen duten hainbat formatutan garatzen da. Hala, [AZ Irratia](#) podcasting-aren egungo formatura bideratutako irratia esperimental bat da, eta haren programazioa kultura esperimentatzeko modu berri bat da, soinu-sorkuntza eta arte-praktika garaikideen inguruko hausnarketa bultzatzen duena. Programazio kulturalaren lerroekin lotutako atal eta gaiekin, balioa emanez Zentroko komunitate artistikoa osatzen duten sortzaile, komisario eta eragile sozial eta kulturalen konplizitateari.

PODCAST-EN PROGRAMAZIOA

Harpidetu AZ Irratia Ivoox plataforman gure programazioa entzuteko



PROGRAMAZIOA

Zientzia Frikzioa

Zientzia Frikzioa Bizitza espezie lagunen artean erakusketarekin batera egindako soinu-bidaia da Zientzia Frikzioa, eta paisaia, abeltzaintza, nekazaritza, onddoak, itsas fauna eta landareak bezalako gaietara zabaltzen du begirada, besteak beste.

La ola en la mente: oralidad secundaria (Olatua buruan: bigarren mailako ahozketasuna)

Podcasten programa honek biltzen dituen bost gutunek *La ola en la mente* kimena osatzen dute, Isabel de Naveránek Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garatu duen proposamena.

Diálogos, historietas y bocadillos (Elkarrizketak, istoriotxoak eta bunbuiloak) s

Mediateka BBKn hilero aktibatzen diren *Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak* programaren barruan.

#artebizikiak #eszenAZ #performancea #ikus-entzunezkoa #tecnologia

Estudio Gheada

El Mejor de los Mundos (EMDLM)

Ane Pikaza & Gheadak *El Mejor de los Mundos (EMDLM)* estreinatuko dute, performancea, bideoa eta teknologiaren erabilera narratiba eszeniko gisa aztertzen dituen proiektu eszenikoa.

Eszenaratze honetan, publikoak ikus-entzunezko autorretratu baten eraikuntza ikus dezake, zuzenean eboluzionatzen duena, protagonistak bizi izandako eta kontatutako esperientziei erantzunez. Horrela, elkarrizketa bat sortzen da antzezearen eta teknologiaren artean, teknologia lagungarri baitaio gailuen pantailen atzean ezkatututa dagoen kanpoko publiko abstraktu eta urrunak kontsumitzeko moduko autorretratu eraikitzeko.

EMDLM proiektuak, besteak beste, aztertzen ditu nortasuna ezartzearekin lotutako gaiak, eraikuntza hori modu pribatuan egiten ez den gizarte batean, hautu, esperientzia eta akats guztiak publikoak baitira.

EMDLM diziplina anitzeko proiektua 2018an hasi zen instalazio artistiko gisa. Erretratu zatikatuak, desitxuratuak eta sarritan loturarik gabeak, ustezko arintasunaren azpian gizarte globalizatu eta konektatu bati dagokion tentsio existentziala ezkatutzen dutenak.

APIRILAK 20, OSTEGUNA

ESTREINALDIA

19:00

Auditorioa

18€/12,5€ AZ Txartelarekin eta tarifa murriztuarekin

Tarifen inguruko informazioa azkuna.zentroa.eus webgunean.

 gheada.com/portafolio/emdlm-eszena/

FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaritza:

Gheada eta Ane Pikaza

Dramaturgia: Rut Briones

Aktorea: Ane Pikaza

Argiztapenaren diseinua:

David Alcorta

Ikusizkoak eta espazio eszenikoa:

Gheada

Musika: Adrián García de los Ojos

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2022-2023



#artebiziak #eszenAZ #performancea

Macarena Recuerda Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo

*Cosa Macarena Recuerda Shepherd*ek ILUSIONISMOARI buruzko trilogia amaitzeko erabili duen pieza da. Ikerlan horretan, egileak dioenez, ilusioa antzerkiaren funtsarekin nola konektatzen den pentsatzera iritsi da, eszenaren gainean erakutsiz konbentzioa eta magia, errealitatea eta horren ordezkoa, ekintza eta fikzioa.

2017an hasi zen lan horretan egindako piezak dira *JAY! YA!* (2018), gorputzetik pentsatutako pertzepzio-irudiei buruzko ikerketa, bai eta *The Watching Machine* (2020) ere, argitik, itzaletik eta islatzetik pentsatutako pertzepzio-irudiei buruzko ikerketa. Oraingo honetan, *Cosa. Intervenir un cuerpo* lanean pertzepzio-irudiak eszenografiatik ikertu ditugu. Horretarako, gorputza beste material bat balitz bezala irudikatu dugu, gauza bilakatuz, atrezzo bihurtzeraino, azaldu du artistak.

Artistak azaldu duenez, *Cosa* "gorputz objektibo batez osatutako dantza-pieza da. Gauzen koreografia".



Macarena Recuerda. Cosa

MAITZAK 4, OSTEGUNA

ESTREINALDIA

19:00

Kubo Baltza

18€/12,5€ AZ Txartelarekin eta tarifa murriztuarekin

Tarifen inguruko informazioa azkunazentroa.eus webgunean.

11:00

Eskola-taldeentzako emanaldia

Izena emateko:

info@azkunazentroa.eus

FITXA ARTISTIKOIA:

Idea: Macarena Recuerda

Sorkuntza: Macarena Recuerda, Jorge Dutor eta Maia Villot

Interpretazioa: Macarena Recuerda eta Maia Villot

Jantziak: Jorge Dutor

Argizatzea: Ana da Graça

Ikuskizun hau SAREaren parte da, hau da, euskal antzokien sareko 2023ko dantza-zirkuituarena.

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2022-2023

#artebizikiak #eszenAZ #dantza

Poliana Lima

Oro negro

Oro negro zuzeneko musika duen bi gorputzeko solo bat da.

Petrolioia, mundua eraldatu duen urre beltza da [Poliana Lima](#) dantzari eta koreografoak pieza hau egiteko erabili duen metafora. Piezak poetikoki lotzen du altxor baten indusketa-prozesua eta mendebaldeko kultura hegemonikoan ukatuak eta baztertuak izan ziren elementu eta identitate batzuen balioespena.

Oro negro, gorputza oroimen biziko lurralde gisa hartzen da, eta dimentsio biografikoak, familiarrak eta komunitarioak, soziokulturalak, eta mitikoak eta espiritualak egituratzeko eta irakurtzeko leku gisa. Gorputzaren ikuskera horrek aukera ematen du hainbat belaunalditan zehar ohiturak, azturak, indarkeriak, oinazeak eta gozamenak transmititzeko izan diren ukimen-prozesuen aztarnak aztertzeko. Gorputza konglomeratu askotariko, ezegonkor eta dinamiko gisa eratzen duten identitate-, kultura- eta denbora-dimentsio ugari horiek aztertuz.

Abadiako Antzokian estreinatu ondoren, 2022ko Udazkeneko Jaialdiaren 40. edizioan, [Poliana Limak](#) bere lan berria aurkeztuko du Azkuna Zentroan, bertan garatu baitu piezaren sormen-prozesuaren zati bat.



EKAINAK 8, OSTEGUNA

ESTREINALDIA EUSKADIN

19:00

Kubo Baltza

18€/12,5€ AZ Txartelarekin eta tarifa murriztuarekin

Tarifen inguruko informazioa azkunazentroa.eus webgunean.

 polianalima.com

FITXA ARTISTIKOA:

Kontzeptua, zuzendaritza eta koreografia: Poliana Lima

Dantzariak: Poliana Lima eta Miguel Ángel Chumo Mata

Dramaturgia: Javier Cuevas

Koreografiako laguntzailea: Lucas Condró

Ekoizpena: Isabella Lima

Koprodukzioa: Poliana Lima eta Mapas Fest

Lankideak: Udazkeneko Jaialdia, Madrilgo Udala, Azkuna Zentroa, San Cristóbal de la Lagunako Udala, Teatros del Canal, Tenerifeko Auditorioa.

eszen//AZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen denboraldia 2022-2023

#artebiziak #kontzertua #musika elektronikoa

Sergio Luque & Juan Carlos Blancas

La légende d'eer (Xenakis)

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Sergio Luque konpositoreak eta Juan Carlos Blancas soinu-diseinatzaileak *La légende d'eer* interpretatuko dute. Iannis Xenakis konpositoreak sortu zuen, musika elektronikoa aitazindarizat eta musika estokastikoa sortzailatzat jotzen denak.

Pieza hau bere obrarik enblematikoenetako bat da, elektronikaren maisulanetako bat, 1977 eta 1978 artean konposatua, eta Parisko Georges Pompidou zentroaren inaugurazioan estreinatua. *La légende d'eer* (1977-1978) Xenakisek bere bizitzan barrena sortu zituen bost politopoetako bat da. Sorkuntza horiek hainbat bitarteko baliatzen dituzte, hala nola musika, arkitektura, argia, bisualak eta testuak. Kasu honetan, Sergio Luque eta Juan Carlos Blancasek interpretatuko dute obra, artistek kanal anitzeko bertsioan prestatuta.

Sergio Luque ahots-musika, musika instrumental eta elektroakustikoko konpositorea, eta ordenagailu bidezko musika-ikertzailea da. Katarina Gurska Goi Mailako Zentroko Konposizio Elektroakustikoko eta Bitarteko Berrietako Masterraren zuzendarikide, eta Hagako Errege Kontserbatorioko irakasle gonbidatua da. Era berean, Birminghameko Unibertsitateko Konposizioko doktorea da.

Juan Carlos Blancas soinu-diseinatzailea, musikaria eta irakaslea da. Esperientzia handia du soinu-espazioak sortzen, ikus-entzunezko, literaturako eta eszenako proiektu artistikoetarako. Landa-grabazioak egiten espezializatuta dago, bai eta material hori programazio-inguruneetan eraldatzen eta prozesatzen ere. CRC Arte Digitaleko Kultura Elkartearen kide sortzailea da.

MAIATZAK 23, ASTEARTEA

19:00

Auditorioa

10€/7€ AZ Txartelarekin eta
tarifa murriztuarekin



Jean-Luc Godard

Esperimentatzeko artea



OTSAILAREN 22TIK MAIATZAREN 25ERA ARTE

Asteazkena eta osteguna
Golem Alhóndiga Zinemak
5€ / 4€ AZ txartelarekin
Sarrerak: Golem Alhóndiga
Zinemetako txarteldegian eta
golem.es helbidean.

Zinematekak aurrera jarraitzen du Jean-Luc Godardi eskainitako zikloarekin, zinemagilea nouvelle vagueko erreferentea eta zinemaren historiako zuzendaririk eraginkor eta berritzaileenetako bat izan baitzen.

Jean-Luc Godard. Esperimentatzeko artea ez da atzera begirako bat, baizik eta egile honen lanik esperimentalenen aukeraketa bat, lan horiek aditzera ematen baitute arte zinatografikoa etengabe berritzeko zuen estilo berezia, baliabide eta formatu ugari erabili zituelako, esaterako, bideoa —aitzindarietako bat izan zen horretan— eta, gainera, ezarritako erregistroak, hizkuntzak eta kanonak —berekak barne— etengabe zalantzan jarri zituelako.

Horren adibide dira *Jean-Luc Godard Passion* (1982), *Adieu au langage* (2014), edo *Le Livre d'image* (2018), bost kapituluko saiakera bisuala, beste film batzuen laburpenekin, testu- eta musika-zatiekin eta mailegatutako muntaketekin egina.

Halaber, zikloak aintzat hartzen du zinemagile frantses-suitzarrak beste artista batzuekin zuen harremana, hala nola nouvelle vaguearen erreferenteetako bat zen Agnès Vardak zuzendutako *Visages villages* (2017) dokumentalean izan zuen parte-hartzea.

APIRIL ETA MAIATZEKO PROGRAMA

Apirilak 19, asteazkena | 17:00
Apirilak 20, osteguna | 19:30



Week-end (1967)
105' | JBGA | Digitala
Komedia, drama, satira
Z/G: Jean-Luc Godard
A: Mireille Darc, Jean Yanne, Jean-Pierre Kalfon, Juliet Berto, Michèle Breton, Jean Eustache, Paul Gégauff, Blandine Jeanson

Apirilak 26, asteazkena | 17:00
Apirilak 27, osteguna | 19:30



Adieu au langage (2014)
70' | JBGA | Digitala
Drama, zinema esperimentalta
Z/G: Jean-Luc Godard
A: Héloïse Godet, Zoe Bruneau, Kamel Abdelli, Richard Chevalier, Jessica Erickson

Maiatzak 3, asteazkena | 17:00
Maiatzak 4, osteguna | 19:30



Visages villages (2017)
90' | JBGA | Digitala
Pasarteak 3Dan, Dokumentala
Z: Agnès Varda, Jean René
A: Jean-Luc Godard, Jean René, Laurent Levesque, Agnès Varda

Maiatzak 17, asteazkena | 17:00
Maiatzak 18, osteguna | 19:30



Sauve qui peut (la vie) (1980)
90' | JBGA | 35 mm
Drama
Z: Jean-Luc Godard
G: Jean-Luc Godard, Jean Claude Carrière, Anne-Marie Miéville
A: Isabelle Huppert, Jacques Dutronc, Roland Amstutz, Michel Cassagne, Nathalie Baye, Cécile Tanner, Roger Jendly

Maiatzak 24, asteazkena | 17:00
Maiatzak 25, osteguna | 19:30



Le livre d'image (2018)
90' | JBGA | Digitala
Dokumentala
Z/G: Jean-Luc Godard
Ahotsa: Jean-Luc Godard, Anne-Marie Miéville, Jean-Pierre Gos

LABURDURAK

Z: Zuzendaria
G: Gidoia
A: Aktoreak

ZIKLO OSOA

Otsailak 22 eta 23
La chinoise (1967)

Martxoak 1 eta 2
Tout va bien (1972)

Martxoak 8 eta 9
Jean-Luc Godard Passion
(1982)

Martxoak 15 eta 16
Je vous salue, Marie (1984)

Martxoak 22 eta 23
Pierrot le fou (1965)

Apirilak 19 eta 20
Week-end (1967)

Apirilak 26 eta 27
Adieu au langage (2014)

Maiatzak 3 eta 4
Visages villages (2017)

Maiatzak 17 eta 18
Sauve qui peut (la vie) (1980)

Maiatzak 24 eta 25
Le livre d'image (2018)

INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira, gaztelaniaz azpitolatuak (JBGA).

Zikloko eskuliburua AZ Infon hartu, azkunazentroa.eus-en deskarga ezazu edo eskatu mezu elektronikoko bat bidalita info@azkunazentroa.eus helbidera, eta harremanetan jarriko gara zurekin.

Honekin lankidetzan eginda:

**INSTITUT
FRANÇAIS**
BILBAO

SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK



Sorkuntza garaikidean laguntzeko programa

Azkuna Zentroak Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentro gisa duen misioaren barruan dago sorkuntzan laguntzea. [2019-2023 Programa Proiektuaren](#) bidez, laguntza, konplizitatea eta elkarrekiko ekarpena dira prozesu artistikoen sustapenaren ardatzak.

Esparru honetan garatzen diren proiektuak diziplina anitzekoak dira eta programazioarekin lotuta daude: dantza, antzerkia, zinema, komikia, musika, letrak. Gainera, alderdi publiko bat dute beti, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez. Artisten, ikertzaileen, kolektiboen eta publikoen komunitateen arteko topaketa horiek egonaldian zehar egiten dira, baina, batez ere, [Ate Irekien Jardunaldiaren](#) esparruan. Hurbileko sormen-ehuna nazioarteko kultura-ingurune homologagarriekin lotzea ere sustatzen da, trukeak, harremanak eta lankidetzira iraukorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Batez ere ibilbide ertaineko artistei zuzendua, [Sorkuntzan Laguntzeko Programak](#) emaitzan eta prozesuan jartzen du arreta. Horretarako, zentroak espazio dinamiko bat izan nahi du, proba eta erreko saiakuntzak eta ariketak egiteko baldintza egokiek, beste denbora batzuekin, sorkuntzak behar dituen denborekin, hain zuzen.

Sorkuntza artistikoa espazio guztietan gertatzen da, baita [erakusketa-aretoan](#) edo [Mediatekan](#) ere. Hala ere, [Lantegia](#).

[Ideien laborategia](#) da sormenaren eta esperimazioaren erreferentziazko espazioa Azkuna Zentroan. Bi solairuko eraikin bat da, eta ikerketarako, ezagutzarako eta praktika artistikorako zortzi laborategi, erakusketa-espazio bat eta eszenaratze garaikiderako agertoki espezifikoko bat ditu. Lanerako habitak bat da, esperimazio-tailer bat, eta harreman mota desberdinak ezartzen dira trukea, prozesuak eta sorkuntza artistiko garaikidea errazteko. Bai eta leku ireki bat ere, sarbide librekoa, zentroan bizi den komunitatearen lana ezagutzera hurbildu nahi duten publikoen komunitate guztientzat.

Azken lau urteetan egonaldi berriak aktibatuta dira esperimenziorako, hausnarketarako eta ezagutza partekaturako gune gisa. Gaur egun, Azkuna Zentroak sorkuntzan laguntzeko zazpi programa bultzatzen ditu, eta, horien bitartez, aurtun eta datorren urtean, ia hogeita hamar proiektu aktibatuko dira:

- [Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiarrak](#)
- [Ikertzaile AZ Kideak](#)
- [Artista AZ Kideak](#)
- [Lanean. Laguntasuna prozesuetan](#)
- [Nazioarteko egonaldi gurutzatuak: Dantza, praktika artistikoak, komikia](#)
- [Babestu. Sorkuntzan Laguntzeko Programa](#)



Azkuna Zentroa - Alhóndiga
Bilbaoko Egonaldi Artistikoen
Programak Etxepare
Institutuaren laguntza du.



Banco Sabadell Fundazioak
Babestu. Sorkuntzari laguntzeko
programa sustatzen du, artea eta
kultura bultzatzeko eta zabaltzeko
duen programaren barruan.

Nazioarteko egonaldi berriak: arte eszenikoak eta teknologia berriak

Azkuna Zentroa ACuTe - Culture Testbeds for Performing Arts and New Technology proiektu europarraren parte da. Multidisziplinario eta multi-trans honek, oro har, arteak eta, bereziki, berrikuntzan eta teknologian inplikaturako performing arteak ditu ardatz.

Kultura-zentroek, unibertsitateek eta arte sortzaileetako erreferentziako erakundeek osatzen dute partzuergo berri hau, besteak beste, hauek: Oulu University of Applied Sciences (Finlandia), Ars Electronica (Austria), Saxion University of Applied Sciences (Herbehereak), Academy of Theatre and Digitality (Alemania) eta European Theatre Convention, Europako antzoki publikoen erakunderik handiena.

Aliantza hau aukera ona da ekoizpen eszenikoetan prototipo ukigarriak probatzeko eta sortzeko, eszenatokian

istorioak kontatzeko, horiek ekoizteko eta publikoak haiekin eragin-trukea izateko eta konprometitzeko duen moduan berritzeko.

Hala, hiruhileko honetan, Azkuna Zentroan egingo da zentroak 2022tik 2025era bitartean kudeatuko dituen lau egonaldietatik lehena. Dramaturgia, eszenografia eta teknologia berrietako 15 profesional europarrek parte hartuko dute bertan.

Gainera, hirurteko honetan, proiektuan aurreikusitako ekoizpen esperimentaletako bat sortu, eta ezagutza trukatzeko topaketak egingo dira, Prototipoak, Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan, 2025ean.



Babestu. Sorkuntzari Laguntzeko Programa - 2023

Babestu Sorkuntzari Laguntzeko Programaren deialdian hautatutako artistak lanean ari dira dagoeneko beren proiektuak sortzeko prozesuetan, Lantegia Ideien Laborategian.



Julia Martos

Un vestido claro clarísimo

Julia Martos artista bisualak ikerketa-proiektua hasi du.

Un vestido claro clarísimo, zinema dokumental garaikidearen, artist moving image-aren eta artxibo pertsonalarekin egindako lanaren arteko elkargunean kokatua.

Artistak zehazten duenez abiapuntua izan da «apenas ezagutu nuen gure familiako pertsonaia baten gutunen, egunkarien eta bestelako dokumentuen artxiboa aztertzea: ama aldeko amona nuen Carmen Quirósena». Artxibo pertsonal horren narratiba bat da, «zahartzearen eta denboraren iragaitzaren inguruko obsesio baten inguruan dabil, eta xelebrekeria berezi baten bidez erakusten du: obsesio finkoa du inguratzen duten emakumeen itxura fisikoarekiko».

Lan honen bidez, Julia Martosek bere buruari galdetzen dio nola lan egin daitekeen historia ofizialak aintzat hartzen ez duen artxibo-mota batekin, «proposamen estetikoak zein politikoak egiten dituen zinema bat lortu nahi dudan bitartean, autonarrazioak duen potentzian sinesten duen zinema, eskema eta egitura patriarkalak iraunarazteko joarekin hausteko gai den kontrahistoria gisa».

[#artxiboa](#) [#bideo-saiakera](#) [#artistmovingimage](#)

Maia Villot

AMA prelude

Maia Villot de Diego (Sevilla, 1977) artista, komisario eta liburu-saltzailea diziplina anitzetik ari da lanean, arretamota bat sortzeko ideia-irudiaren, kontenplazioarekin, entzutearekin eta irudiei beren kabuz hitz egiteko denbora ematearekin zerikusia duena.

«Gehien interesatzen zaidana da beste modu batera begiratzea, gauzei denbora ematea begi-bistakoa denaz harantz ikusteko, eta, hain zuzen, horregatik abiatzen naiz irudi arketipiko eta estereotipoetatik irudi berriak sortzeko. Horiek balio didate galderak egiteko eta aurrean ditugun gauzei buruz hausnartzeko, gauza horiei ez baitiegu jaramon handirik egiten, ziurtzat jotzen baitugu horrelakoak direla, eta, besterik gabe, onartu egiten ditugu, azalean geratzen gara», azaldu du.

Egonaldi honetan, *AMA prelude* garatzen du, lantzen ari den proiektu handiago baten lehen zatia; lehen hurbilketa dominatrixaren figurara, femme fatal-ari lotutako beste estereotipo femenino bat den aldetik.

[#gorputza](#) [#ahotsa](#) [#eskultura](#) [#performancea](#)



Estanis Comella

SXT (Source by Transkription) – AP7: VEIL

«SXTk situazionalak izan daitezkeen zenbait prozesu aktibatzen ditu, zuzeneko ekintzaren bidez jokoan sartzen direnak», azaldu du Estanis Comellak bere proposamenari buruz. Idazteko motor gisa hartzen ditu

«irudien artxibo propioa eta prozesuarekin batera izan diren artisten, idazleen, musikarien eta arkitektoen erreferentziak, eta une bakoitzean lotura zuzenak ezartzen ditu ikerketa-objektuekin».

Proiektuaren helburua da SXTren aldaketa espezifiko bat garatzea, zuzeneko ekintza baterantz joz, «non lan-espazio desberdineko materialek (partiturak, testuak, jantziak, irudiak) esparru lagungarri bat sortzen duten, erlazioan eta hedatu ahal izateko», azaldu du.

[#narratibaberriak](#) [#gorputza](#) [#ahotsa](#)





Oihana Vicente

REEL CINEMA_filming movies randomly

Oihana Vicente (Bilbo, 1984). Artista eta aktorea. Orain arte antzerkian, performancean eta eskultura-instalazioan lan egin izan du. Artean eta diseinuan esperimintatzeko BiGGeR_arte eta garapena espazioa diseinatu eta zuzentzen du; ideiak sortzeko eta errealitatean txertatzeko beharrezkoak diren baldintzak bideratzen dituzten esperientziak eratzten ditu.

REEL CINEMA_filming movies randomly nerabeei zuzendutako ikus-entzunezko tailerra da. Parte hartzen duen taldeak eragingo duen "garaikidetasun etena" erretratatzeko duen film bat sortu nahi du. Horretarako, nahastu egingo ditu zinemaren, bideo-artearen eta baliabide berrien egiturak, edukiak eta baliabideak, baita gaur egun sare sozialek proposatzen dituzten bitartekoak eta formatuak ere.

[#ikus-entzunezkoak](#) [#bideo-arte](#) [#newmedia](#)

Pablo Marte y Lorenzo García-Andrade

Violencia Fantasía

Pablo Martek eta Lorenzo Gariko-Andradek urtebete daramate Deseo Real izeneko argumentu afektiboan murgilduta. Honen ikerketa-ildoetako bat *Violencia Fantasía* da.

Pablo Marte (Cádiz, 1975) artista, idazlea eta ikertzailea da. Bere lana idazketan eta horrek mugimenduan dagoen irudiarekin duen harremanean hasten da, muntaiaren bidez eta irudia espzializatzeke moduak ikertzen.

Lorenzo García-Andrade (Madril, 1991) Zientzia Politikoetan lizentziaduna da. Komisariotzaren, ekoizpen kulturalaren eta praktika artistiko desberdinen arteko elkargunean aritu da lanean. Esperientzialaren potentzialtasunean eta horrek mugiarazten dituen hizkuntzetan oinarritutako proiektuak garatzen ditu.

*Violencia Fantasía*k desiraren eta indarkeria gaur egungo mundura egokitzeke dituen forma sotilen arteko harremana aztertzen du. Indarkeria sotiltzat hartzen dira irudikapen ederretatik fantasiaraino ateratzen diren indarkeria-motak, bere buruaren irudi ezin hobea sortzarekin obsesionatuta dagoen gizarte batean.

[#ikus-entzunezkoak](#) [#performancea](#) [#narratibaberriak](#)





IA

I ANTEGIA

SALIDA
ANTEGIA



Artista AZ-kideak

Sorkuntzari laguntzeko programa, lengoia garaikideei buruzko inspirazio-iturri diren lanak egiten dituzten artistei laguntzen diena.



Elena Aitzkoa

Ur aitzak

Elena Aitzkoa (Apodaka 1984) diziplina anitzeko artista da. Bere praktikak eskultura, marrazketa, poesia eta performancea batzen ditu. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian.

#eskultura #poesia

Miguel A. García

Comclapompos. Usar el flujo como un cauce

Miguel A. García (aka Xedh) elektroakustikoa hartzen ditu. Gailu elektronikoen hondakinetatik lortutako sonoritateak erabiltzen ditu esperientzia intimo, murgiltzaile eta bizi baten bila.

#musikaesperimental #inprobisazioa



Ion Munduate

Rosa de los vientos (Haize-arrosa)

Ion Munduate (Donostia, 1969) Calvorekin batera, 1994an lankidetzan artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, *Mugatxoan* sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.

#dantza #ikerketa



Ikertzaile AZ-kideak

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.

© Helena Gorri 2021



Aimar Arriola

Un deseo de forma (Forma desira)

Aimar Arriola *Un deseo de forma* proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikagoekin.


#queer #forma

Isabel de Naverán

La ola en la mente (Uhina gogoan)

Isabel de Naverán *La ola en la mente* ikerketa lana garatzen ari da. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumenen lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

#gorputza #idazketa



Azkuna Zentroko Kolektibo Egoiliarra

Hurbileko kolektiboek zuzendutako bi urteko akonpainamendu programa, lengoia artistiko eta kultura garaikidea lantzen dutenak, hainbat forma eta begiradetatik.

Urbanbat

Behatokia

Hiri-berroneratze *Urbanbat* bulegoak *Behatokia* programa garatzen du, hiria ikuspegi transdiziplinar batetik behatzeko hiri-ikerketarako laborategia.

#gizartea #SituationRoom



Azkuna Zentroko Kolektibo Egoilarren
Programak honako babesdu:

urbegi

#komik #erakusketa #egonaldia

Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin, Clara Chotil

¡Hay caldo! (Salda badago!)

Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren erakusketa

¡Hay Caldo! erakusketak Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin eta Clara Chotil artisten proiektuak aurkezten ditu, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Quebec-eko Maison de la Littérature-k eta Angulemako Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'image-k bultzatu duten Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren esparruan.

¡Hay Caldo! erakusketan, su motelean egindako hiru istorio daude. Prozesuaren fase desberdinetan dauden hiru "protoliburu". Batera prestatuta, osagai batzuk behin eta berriz etortzen dira ahora, tipula eta baratxuri erregosiak etxean egindako gisatu batean bezala. Beste osagai batzuk berritzaileak edo minak izan daitezke: Arriskutsua al da gorri gehiegi julianan? Grafitozko marra horiek gehiago prestatu ahal dira? Ondo al dago lerroaren eta orbanaren arteko kontraste hori, edo hobeto lotu beharko litzateke irin pixka batekin, agian? Hau ez da komiki tradizional bat, zapore berrien egosketa baizik.

Andrea Ganuza (Iruñea, 1988)

Atraviesame

Eleberri grafiko hau 2017 eta 2020 bitartean Medellin hirian (Kolonbia) gertaleku duten istorio laburren bilduma gisa aurkezten da. Esperientzia pertsonaletik kontatuta, sentsazioen eta poesiatik hurbil dagoen estilo baten bidez, gonbit egiten digu inguratzen gaituenaren eragina hartzera, gizabanakoen eraldaketa lortu nahian.

**MARTXOAREN 29TIK
MAIATZAREN 14RA**

Mediateka BBKren galeria

Sarrera dohainik



Ezkerretik eskuinera, Charlotte Gosselin, Andrea Ganuza eta Clara Chotil

Charlotte Gosselin (Quebec, 1996)

Our relapses

Proiektu hau narrazio poetikoaren, elkarrizketen eta marrazkien artean dabil, eta sentikortasunez lantzen ditu hainbat gai: adikzioak, baterako mendekotasuneko harremanak, laguntza-taldeak eta susperraldia. Bere bikotea salbatu nahian bere buruaz ahaztu eta gaixotu den narratzaile bati jarraituko diogu. Bere begien bidez, bi pertsonaiek ahalegina egingo dute bidea aurkitzeko orekarantz eta susperraldirantz jotzeko.

Clara Chotil (Frantzia-Brasil, 1992)

Tehoka

Dourados (Brasil) lurraldeko historia erakusten duen ikerketa dokumental batetik sortutako fikzioa da Tehoka, bi familiaren kontakizun gurutzatuaren bidez eratua. Ipar-ekialdeko kolonoen ondorengoa den Valdir eta kaiwá militante gaztea den Cecilíaren arteko ibilerak eta liskarrak erakusten ditu. Kontakizun honek oraintsuko kolonizazio baten istorioan murgiltzen gaitu: hasiera konplexukoa, eta Brasilgo eraikuntza nazionalean arduatua, horren ondorioek lurralde nazionala gainditzen baitute gaur egun.

HEZKUNTZA PROGRAMA



#bitartekotza #ikus-entzunezkoak #tailerra

Oihana Vicente

REEL CINEMA_filming movies randomly

Oihana Vicentek, *Babestu*. Sorkuntzari laguntzeko programako artista egoiliarak, *REEL CINEMA_filming movies randomly* ikus-entzunezko tailerra jarri du abian, nerabeei zuzenduta.

Tailer honetan, ikus-entzunezko edukia sortzea eta nahastea proposatzen da, baliabide honen etapa eta tresna tradizionalak (gidoia, interpretazioa, fotografia eta muntaia, eszenografia eta lokazioa, jarraitutasuna...) eta sare sozialen berezko egiturak, baliabideak eta formatuak aztertuz.

Praktika honen bidez, parte-hartzaileek filmetako eszenen, bideoen eta gaur egungo beste eduki grafiko, literario edo musikal batzuen bertsiokak egingo dituzte. Horrela, fikzioaren atzean dauden "trikimailuekin" esperimendatuko dituzte, eta alegiazko mundu kolektiboetan murgilduko dira.

Oihana Vicente artista eta aktoreak, eszena eta ikus-entzunezkoetako arteko profesionalen laguntzaz, taldea gidatuko du, gehienbat smartphoneekin filmatuko diren pieza horiek sortzen.

Azken proiektu gisa, ikus-entzunezko produkzio berri bat egingo dute, landutako erreferentzien estrategia eta baliabideen erreplika eginez.

GAZTEAK

**ASTEARTERO,
APIRILAREN 18TIK
EKAINAREN 27RA**

18:00-20:00

Azkuna Zentroa / online.

15 eta 17 urte arteko pertsonak

lzena emateko:

info@azkunazentroa.eus



#bitartekotza #literatura #komikia #zinema

Zinema-elkarrizketak. Argiak, kamera... ekin!

Asteartea, apirilak 18

Stanley Kubrick. *El Resplandor* (1980)

Asteartea, maiatzak 9

Jean-Luc Godard. *À bout de souffle* (1960)

Asteartea, ekainak 6

Ridley Scott. *Blade runner* (1982)

HELDUAK

**ASTEARTEA: APIRILAK 18,
MAIATZAK 9, EKAINAK 6**

18:30-19:30

Mediateka BBK: TK101

Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak: emakumeak

Asteazkena, apirilak 26

Quino. *Mafalda* | Espainiarra

Asteazkena, maiatzak 24

Jaime Hernández. *Locas* | Amerikarra

Asteazkena, ekainak 21

Posy Simmonds. *Tamara Drewe* | Europarra

HELDUAK

**ASTEAZKENA: APIRILAK
26, MAIATZAK 24,
EKAINAK 21**

18:30-19:30

Mediateka BBK: TK202

Irakurketa-kluba Munduko Literatura

Osteguna, apirilak 20

Khaled Hosseini (Afganistan). *Cometas en el cielo*

Osteguna, maiatzak 4

Alaine Polcz (Hungaria). *Una mujer en el frente*

Osteguna, ekainak 1

David Coventry (Zeelanda Berria). *La milla invisible*

HELDUAK

**OSTEGUNA: APIRILAK 20,
MAIATZAK 4, EKAINAK 1**

18:30-19:45

Mediateka BBK: TK201

#bitartekotza #eskola #artebiziak #eszenAZ #antzerkia

Macarena Recuerda Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo

*Cosa Macarena Recuerda Shepherd*ek ILUSIONISMOARI buruzko trilogia amaitzeko erabili duen pieza da. Ikerlan horretan, egileak dioenez, ilusioa antzerkiaren funtsarekin nola konektatzen den pentsatzera iritsi da, eszenaren gainean erakutsiz konbentzioa eta magia, errealitatea eta horren ordezkoa, ekintza eta fikzioa.

ESKOLA

MAITZAK 4, OSTEGUNA

11:00

Eskola-taldeentzako emanaldia

Izena emateko:

info@azkunazentroa.eus

Bilbon Eskolatik Antzerkira

Apirilean, ikastetxeetako publikoa arte eszenikoekin elkartzeari ekingo zaio, [Mitusuk](#) eta [Azkuna Zentroak](#) egindako proiektuaren bidez. Programak bi antzerki-proposamen eta ikastetxeekin hitzartutako zazpi emanaldi ditu.

Apirilak 26, asteazkena

XOCOLAT

Teatro Paraíso

Teatro Paraísok ezusteko eszeniko gozoa eskaintzen die ikuslerik txikiei: *Xokolat*. Bizitzeko, irudikatzen eta kuxkuxean ibiltzeko plazerari egindako kantua, *Small Size Performing Arts for Early Years* Europako Proiektuaren parte dena.

Publikoa: Haur Hezkuntza
Iraupena: 45

Apirilak 28, ostirala

LUNATIKUS CIRKUS

Teatro Paraíso

Hiru galtzaile, hasiera batean mesfidati egon arren, ohartzen dira beren indarrak batuz gero dena errazagoa izan daitekeela. Horretarako, ahaztutako karabana bat eraldatu, zirku txiki ibiltari bihurtu, eta jolastuko dira zirkuko artista bilakatzena.

Publikoa: Haur
Hezkuntzako 2. zikloa
Iraupena: 60'

ESKOLA

**APIRILAK 26, ASTEAZKENA
APIRILAK 28, OSTIRALA**

9:45-11:15

Auditorioa



AZ





Bilbao Basque Fest

APIRILAREN 5ETIK 8RA

basquefest.bilbao.eus


bilbao
basque
FEST

FANT

29 Bilboko Zinemaldi Fantastikoa

fantbilbao.eus

MAIATZAREN 5ETIK 13RA

Jaialdiaren proiektzioak eta aurkezpenak

FANT

APIRILAK 5, ASTEAZKENA

19:30

Izar Blue. *Munduko Soinuak, visual experience.*
Ikus-entzunezko ikuskizuna

APIRILAK 6, OSTEGUNA

12:00

Izar Blue. *Nuevos lenguajes artísticos.*
Hitzaldi didaktikoa

18:00

Zertzeladak. Udal Txistulari Bandaren kontzertua
Birakari Elkarteko soinu-jole, bertsolari eta
erraldoekin batera

APIRILAK 7, OSTIRALA

19:30

Zabala (Jon Aguirrezabalaga).
Musika elektroniko esperimentaleko kontzertua

APIRILAK 8, LARUNBATA

12:00

Izar Blue & Jon Aguirrezabalaga.
Nuevos lenguajes artísticos. Hitzaldi didaktikoa

19:30

Zabala (Jon Aguirrezabalaga).
Musika elektroniko esperimentaleko kontzertua

Dantzerti

Euskadiko Arte Dramatikoko eta
Dantzako Goi Mailako Eskola

dantzerti.eus

MAIATZAK, 17, 18. ASTEAZKENA ETA
OSTEGUNA

Lanen aurkezpena



Interkulturete

Aniztasunaren Nazioarteko Eguna

unescoetxea.org

MAIATZAK 21, IGANDEA

UN
ETXEA



Zinemagileen artean

Emakumeek egindako
zinemaren 11. Karabana

kcd-ongd.org/caravana

MAIATZAREN 22TIK 26RA.

Aurkezpenak eta proiektzioak

KCD
Kultura Communication Desareadilla
ONGD
ONGD
ONGD



Gau Zuria

Bilboko Gau Zuria

bilbao.eus

EKAINAK 16, 17 OSTIRALA ETA LARUNBATA



Bilbao

Zinegoak

Bilboko LGTBIQ+ 20 Nazioarteko Zinema
eta Arte Eszenikoen Jaialdia

zinegoak.com

EKAINAREN 26TIK UZTAILAREN 1ERA

Aurkezpenak eta proiektzioak



proto tipo ak

proto_tipo_ak

Forma_Artistiko_Berrien_Nazioarteko_Bienala
Bienal_Internacional_de_Nuevas_Formas_Artísticas
International_Biennial_of_New_Artistic_Forms

2023ko maiatzak 30 eta 31, ekainak 1, 2 eta 3

Fermín Jiménez Landa
Ainhoa Lekerika
Iratxe Jaio & Klaas Van Gorkum
Ayşe Erkmen
Susana Velasco
Teatro Ojo
Mara Oscar Cassiani
Stéphane Noël

eszen//AZ

Antzerkia, dantza eta performancea
ikusteko beste modu bat



Estudio Gheada

El Mejor de los Mundos (EMDLM)

Apirilak 20, osteguna

Macarena Recuerda Shepherd

Cosa. Intervenir un cuerpo

Maiatzak 4, osteguna

Poliana Lima

Oro negro

Ekainak 8, osteguna

2022ko urria > 2023ko ekaina

Azkuna Zentroaren arte eszenikoen denboraldia

ZINEMA



2023KO URRIA ETA AZAROA

ZINEMATEKA

Mangatik zinemara: Japoniako
zinema garaikidearen zikloa

2023KO URRIAREN 2TIK 8RA

ZINEMALDIA

Donostia Zinemaldia
Azkuna Zentroan

2023

ERAKUSKETAK

2022KO URRIAREN 28TIK 2023KO APIRILAREN 16RA

Somewhere from here to heaven

Komisarioa: Garbiñe Ortega

ERAKUSKETA ARETOA

2023KO EKAINAREN 29TIK 2024KO URTARRILAREN 7RA

Bene Bergado *Decrecer*

Komisarioa: Juan Luis Moraza

ERAKUSKETA ARETOA

2024KO MAIATZA - EKAINA

Christa Sommerer & Laurent Mignonneau *TAALS - The Artwork As A Living System*

ERAKUSKETA ARETOA

2023-2024

dendAZ. This is Basque Design

AZKUNA ZENTROAREN SALTOKIA



Diseinua

Ilustrazioa

Argitalpenak

Moda eta osagarriak

Dekorazioa

Upategia

Bertako 30 artista baino gehiago:

Abana Bilbao, Ailanto, Amakuyi, Amarenak, Ane Pikaza, Angélica Barco, BaRock, Cookplay, Elena Ciordia, Ekomodo, Espacio Aerre, From The Basque Country, H05_BILBAO, Higi Vandis, Katxi Klothng, Kiribiltxo, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniego, MRLASPIUR, Palo Palú, Pilar Morquillas, Susana Blasco, The Real Studio, Tytti Thusberg, Yolanda Sánchez, Zioru, Ziriak.

Online saltokia:

dendaz.azkunazentroa.eus

Hurrengo This is Basque Design Merkatua: uztaila

AZ argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenek praktika artistiko garaikidea jasotzen dute, ezagutu eta zabaltzeko



Liburu-Eraketaren katalogoa

Somewhere from here to heaven
Eus. / Gas. / Ing.
Orrialdeak: 112
24,5 x 32 cm
33€



Eraketaren katalogoa

Una voz para Erasmo. Epilogo para un tiempo trans Cabello/Carceller
Eus. / Gas. / Ing.
Orrialdeak: 316
24€



Koaderoak

Metakoaderoak. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren sorkuntza-koaderoak
Eus. / Gas. / Ing.



Fanzine

Consejo de sabias
Sra Polariska
Eus. / Gas.
Orrialdeak: 70
16 x 16 cm
14€



Liburu-objektua

Catálogo de derivas
Oscar Gómez Mata -Artista AZ-
kidea - eta Esperanza López
Eus. / Gas. - Ing. / Fra.
20 orrialdeko liburutxo bat, 12 diptiko, 11 txartel eta gutun-azal eta hiru zabaltzeko-orri, guztiak diseinu-kutxa batean
25€



Liburua

Arquitecturas prematuras. Valcárcel Medina
Isidoro Valcárcel Medina
Eus. / Gas. / Ing.
Orrialdeak: 96+96+80
Kutxa + hiru koadernotxo
49€

Azkuna Zentroa argitalpenak erosi ditzakezu:

dendAZ. Azkuna Zentroaren Saltokian

dendaz.azkunazentroa.eus



TAILER BERRIAK JARDUERA FISIKOKO ZENTROAN

2023. APIRILA-MAIATZA-EKAINA

CALISTENIA

Apirilak 21 > Ekaina 9
Ostiraletan: 19:00-20:00

MINDFULNESS

Apirilak 22 > Ekainak 10
Sábados: 12:15-13:15

GRABITATEA 0 (AURRERATUA)

Maiatzak 3 > 29
Astelehen eta asteazkenetan: 18:00-19:00

ERORKETEN PREBENTZIOA +60

Maiatzak 4 > 25
Ostegunetan: 12:30-13:30

TAICHIA TERRAZAN

Ekainak 16 > Uztailak 31
Ostiraletan: 18:00-19:30





ARTE ETA KULTURA GARAIKIDEKO PRAKTIKA ETA TEORIAKO

Berezko Masterra

**MATRIKULA ZABALIK
MAIATZETIK AURRERA**

2023/24 IKASTURTEA



PARTNER-AK

Eskerrak eman nahi dizkizuegu

lurraldearekin duten konpromiso sozialetik, laguntzen diguten erakunde pribatu eta publikoei, gizartea kultura garaikidearekin lotzeko dugun eginkizunean.

Sare irekia gara artearen bidez gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta anitzagoa sortzen laguntzen duen proiektu batean parte hartu nahi duten erakunde guztientzat.

Sustatzailea _____

Babesle estrategikoa _____



Kideak _____



Itun kulturalak _____



Itun kulturalak: Arte biziak _____



Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako programa

Partner teknologikoa _____

Erakunde laguntzailea _____



Media partner-ak _____



Kide diren programak _____



Kubo Baltza eta Auditorioa _____



Kubo Baltza eta Auditorioa guneak teknologia digitaler hornitu dira, esperientzia eta espazioa hobetzeko, Next Generation Europako Funtsei esker. Funtse horiek Euskadiko arte eszenikoen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dira.

INFORMAZIO OROKORRA

ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

Kontsultatu ordutegi bereziak webgunean

BISITA GIDATUAK

eraikina

Bisita gidatuak eraikinetik

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

Partikularrak

- Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

Taldeka

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonon edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoaren bidez.
- Prezioak:
Euskaraz edo gaztelaniaz: 60 € taldeentzat.
Ingelesa edo frantsesa: 70 € taldeentzat.
Elkarte eta ikastetxeentzat (aldez aurretik kontsultatu).



erakusketak

Erakusketarako bisitak

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketak testuinguruan kokatzeko:

Somewhere from here to heaven

Erakusketa Aretoa. Apirilaren 16ra arte
Ostegunero, 18:30etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera)

Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoren.

AZ TXARTELA

AZ Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan AZ txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

DESKONTUAK ETA PREZIO BEREZIAK

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok kultura-aniztasun irisgarria sustatzen du pertsona guztientzat, eta, besteak beste, tarifa murriztuak ditu, % 25 inguruko deskontuekin hainbat publiko-komunitaterentzat:

- 65 urtetik gorako pertsonak
- 30 urtetik beherako pertsonak
- % 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonak
- Gurpil-aulkian dauden pertsonak eta laguntzailea
- Profesionalak
- Ikasleak
- 8 pertsonatik gorako taldeak
- AZ txartela duen publikoa

GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.

IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria.

Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiak esperientzia gogobetezkoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.

Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.



HILEKO PROGRAMAZIOA AUDIOZ

Audio formatuan deskarga dezakezu:
soundcloud.com/azkuna-zentroa



KONTSULTATU PROGRAMAZIOA HEMEN: AZKUNAZENTROA.EUS



JAR ZAITEZ HARREMANETAN AZ-REKIN

info@azkunazentroa.eus



B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

**AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO**